

HAZIEN SAREA



HAZITIK IKASTEN HEZKUNTZA PROGRAMA 2017-2018 IKASTURTERAKO PROPOSAMENAK

Jaun-andre agurgarriak:

Euskal Herriko Haziien Sarea elkarteak bere **20. urteurrena ozpatzeko hezkuntza eskaintza berezia** hurbildu nahi dizue. Tailer berriak diseinatu dira **tokiko barietate** eta **haziak** ikasteko, **elikadura subiranotasunaz** jarduteko eta **bioaniztasuna** bultzatzeko.

Curriculumarekiko lotura:

Haziien Sareko hezkuntza tailerrek, hitzaldiak eta formazio ikastaroak lotura curricularra dute gaur egungo hezkuntza programa desberdinekin, lehen hezkuntzatik unibertsitatera arte, baita publiko oroari zuzenduta egongo litzatekelarik ere, eta material jakinaren laguntzaz garatzen ditugu. Ikastetxeei zuzendutako hezkuntza eskaintzari dagokionez, irakasleentzat baliagarria edota beharrezkoa izango duten formakuntza eskaintzen diegu erebai. Jarduerak elkarren artean osagarriak dira, talde berak jarduera desberdinetan parte har baitezake, ezaguerak eta esperientziak zabalduz.

Ikasleei zuzenduriko jardueren edukiak, hezkuntza fase desberdinei dagozkien arlo desberdinetako zeharkako material bezala aise konekta daitezke.

Gure eskaintzaren edukiak eta metodologia intereseko adin tartera egokituta daude.





Euskal Herriko Hazien Sarea
Red de semillas de Euskadi

Motibazioa: Landatutako bioaniztasuna, hazien kultura eta elikaduraren problematika gizarteratzea

Landatutako Bioaniztasunaren galera arazo ekologiko larria da. Horrela definitu dute zientifikoek bilera askotan. Bioaniztasuna kontzeptua askotan murriztuta erabiltzen da; animalia edo landare espezieen aniztasuna adierazteko erabili ohi da, baina berez kontzeptu honek baso edo paisaia eta nekazaritza aniztasuna ere biltzen du.

Azken garaiotan hainbat labore eta nekazaritza barietate desagertu da gure soroetatik. FAOk (Nekazaritza eta Elikadurarako Mundu Erakundeak) dio XX. mendean galdu dela munduan erein den nekazaritza barietateen %75a.

Ingurumen hezkuntzako programa honen bitartez hain ezezaguna den arazo hori ikasleei gerturatzea nahi dugu. 2002-03 ikasturtean Bizkaiko eta Gipuzkoako 14 ikastetxetan hasitako esperientzia baten jarraipena da. Euskal Herriko Hazien Sarearen eta CEIDA-Ingurugelaren laguntzari esker abiatu da proiektua.

Euskal Herriko Hazien Sareak hazien kultura, baserrien munduarekin estuki lotua izanik, horren zaindari eta ikur diren haziak ardatz hartuz, landa ingurua eta hazien kultura ikastetxeetara eta gizarte osora gerturatzeko “**HAZITIK IKASTEN**” hezkuntza programa jarri dugu abian, bi ataletan banatuta egonik; alde batetik, ikasleei zuzenduta eta, bestetik, irakasleentzako formakuntza aurreikusiz ere.

Gai hauek ikasgelan jorratzea ezinbestekoa dela uste dugu Hazien Sarean. Hori dela eta, etorkizun baten buruan landa ingurua eta nekazal kultura ikastetxe eta institutueta gerturatzeko proiektu bat jarri dugu martxan.

Gure nahia litzateke ikastetxe eta tokian tokiko eragileen artean elkarlana sustatuko duen topagune bat sortzea. Gizarte eredu justu eta jasangarriago baterako ezinbestekoak deritzogun tokian tokiko nekazal ekoizpen eta elikadura sistema baten garrantzia ikusarazi eta aintzat hartuko duen kontzientzia sortzea.

Hasteko, **2017-2018 ikasturteari** begira landatutako bioaniztasunarekin eta tokiko haziak zein barazki barietateekin loturiko hezkuntza tailerrak eta hitzaldiak eskaintzen ari gara ikastetxe eta kultur etxeetan.

Informazio gehiago: <http://www.haziensarea.org>

haziensarea@gmail.com





Euskalherriko Hazien Sarea
Red de semillas de Euskadi



Euskalherriko Hazien Sarea
Red de semillas de Euskadi

Hezkuntza tailerrak



Helburuak:

- Baratzeko espezie ezberdinak ezagutzea
- Tokiko hazi eta fruta-arbolak ikastea
- Herrialdeen elikatze-subiranotasuna bultzatzea
- Landutako biodibertsitateak lurrarentzat duen garrantzia aintzat hartzen jakitea

Iraupena: 90 minutu

Prezioa: 155 €

20. Urteurrena ospatzeko
promozio berezia!!

2 tailer = 240 €



HAZITIK IKASTEN, ESKOLETAN

(2017-2018 ikasturterako ekintzak **ikasleentzat**: HH, LH, DBH, Batxilergoa, eta Goi-mailako Zikloak)

1. –Tokiko hazien bioaniztasunaren garrantzia, ugalketa eta dastaketari buruzko tailerra, elikadura osasuntsuagoa eta baratza eskolarra kudeaketarako irizpide berriak abian jarri. Eskola baratzaren proiektuan txerta daiteke. **Izan zaitez Nekazari kaletarra egun batez!!**

(Hezkuntza maila guztiak)

Iraupena: 1:30 h/ saioa eta, hilabete pasa ondoren, 2. saio bat 1:30 h iraupenaz erebai.

2. Non daude gure haziak

(LH.ko 3. ziklotik aurrera. Ikastetxe guztiei zuzenduriko ekintza)

Iraupena: 1:30 h/ saioa.

Ikasleak, tokiko barietateen antzinako haziak bilatuko dituzten “ikerlari” edo “bilatzaile” bihurtuko dira. Horretarako, baratza lantzen duen gertuko baserriar edo pertsona batekin jarriko dira harremanetan (senitartekoak, lagunak, bizilagunak...). Eurekin batera, beraiek erabil ditzaketen aspaldiko hazi barietateak bilatuko dituzte.

Ekintza honekin, baratza eta hazien mundura gerturatzea bilatzen da, ikasgelan burutzen den lana familiartera edo auzora zabaltzeko eta nekazaritza, elikadura, gizarte edo landa garapen eredu bezalako gaien inguruan belaunaldi arteko hausnarketa partekatua bultzatuz.

Ikerketa honen emaitzekin (barietateen azterketa), formakuntza saioak, dibulgaziorako materialak, eskola desberdinen arteko trukea, eragileekin emaitzak partekatzea, baratze interesgarrietara bisitak, aurkitutako barietateekin sukaldaritza saioak eta beste hainbat ekintza antolatu daitezke.

3. Haziteka: hazien gordailua

(Ez da beharrezkoa Baratza izatea)

Jarduera honen helburua da, eskolan erabiltzen diren bertako haziak gordetzeko gordailu bat sortzea. Eskola bakoitzaren ezaugarrien arabera jarduera honek ekintza desberdinak izan ditzake bere baitan: eskola-baratzan bertako barietateak txertatzea, hazien ugalketa eskola baratzan, hazien tailerrak ikasleekin, etab... Kontsultatu.

Haziteka, urteetan zehar eskolan ugaltzen edo erabiltzen diren haziarekin hornituz eta zabalduz joango den espazio fisikoa izatea proposatzen da. Hazien ugalketari buruzko aholkularitza teknikoa barnean du jarduera honek.

“Non daude gure haziak” tailerraren bidez “aurkitutako” haziak, Hazitekaren parte izango dira ere.

Programa honek, jarduera osagarriak ekar ditzake: hazien erauzketa tailerra, erakusketa ibiltaria, gure baratzaren diseinua, plangintza, laboreen harremanak eta txandakatzea ikasi, konposgintza, etab.

4. Tokiko barietateen Fruta Arbolak, landatutako bioaniztasunaren garrantzia, ugalketa (txertaketa) eta dastaketari buruzko tailerra, elikadura osasuntsua.
(LH.ko 3. ziklotik aurrera)

- Iraupena: Jarduera-tailer honetarako saio orokor-kontzeptual eta praktikoa bat proposatzen da, nondik norakoak azaltzeko, helburuak, **1:30 h/ saioa**

(DBH, Batxilergoa, Goi mailako zikloak,...):

Lehenengo saio orokor kontzeptual honetaz gain, izaera teknikoago duen beste bat gauzatu daiteke:

- **Fruta arbolen kudeaketa ekologikoa, txertaketak, gaixotasunak eta zaintzaren jarduera praktikoa.**

- Iraupena: **1:30 h/ saioa**

5. Tokiko Fruta arbol ezkutuen bila.

(LH.ko 3. ziklotik aurrera)

Ikasleak, antzinako tokiko barietateen fruta-arbolak bilatuko dituzten “ikerlari” edo “bilatzaile” bihurtuko dira. Horretarako, beuren **herrian zehar kontserbatu ahal diren fruta arbolak ezagutzeko mapeo bat egitea** proposatzen da, teknologia berriak erabiliz (gps-a,

Horretarako, herriko parkeetan, lorategietan eta herri inguruan bilaketa bat eginez edota fruta arbolak dituzten gertuko baserrietan edo pertsonekin harremanetan jarriz, **herriko fruta arbolen ibilbidea** prestatuko dute. Ekintza honek, **Zientzia Eskoletan** proiektuarekin lotura kurrikularra dauka.

Lan-ikerketak honen **emaitzak** (hain zuzen herriko fruta arbolen bilaketaren emaitzak) **“Conect-e, Jakintza Tradizionala eta Herritar Zientzia”** plataformaren bidez (Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailak, **Ingurugelen** bitartez, sortu duen **“Natusfera”** plataforman txertatzea izango luke helburu ere), herritarrei eta beste eragilei ezagutzera emango zaie. aurkitutako barietateekin fruta eta zukuen dastaketa saioak eta beste hainbat ekintza antolatu daitezke.

Ekintza honekin, herriak gordetzen duten fruta arbolen ondarea ezagutu eta ezagutaraztea bilatzen da, ikasgelan burutzen den lana herrira eta herritarrengana zabaltzeko, nekazaritza, ondare naturala eta jakintza tradizionala merezi duten balioan jarriz.

Iraupena:

- Jarduera-tailer honetarako **saio orokor-kontzeptual bat** proposatzen da, nondik norakoak azaltzeko, helburuak,... **1:30 h/ saioa**; **bigarren saio bat**, hain zuzen **irteera burutzea, 1:30 h**; eta amaitzeko, **ebaluazioa eta emaitzen zabaltzea** (herriko eragileekin batera aurkezpen bat antolatuz esate baterako).

Oharra: Ikasleekin era hezigarrian burutuko litzatekeen lan-ikerketak honen emaitzak, Hazien Sareak zenbait udalerrietan burutu izan dituen bezala, **Prospekzio Proiektu berri bati hasiera** emateko baliagarria izango litzateke.

6. Fruta arbolen zaindariak eta Frutateka, fruta-arbolen gordailua eskolan

((Baratzaren ondoan lur sailen bat duten ikastetxeei soilik zuzenduriko ekintza)

Jarduera honen helburua da, ikasleak, "Tokiko fruta arbol ezkutuen bila" lan-ikerketaren emaitzekin, hau da, herrian eta inguruko baserrietan aurkitutako barietateak eta Euskal Herriko Hazien Sareak kontserbatzen dituen antzinako barietateen fruta-arbolak eskolan zaintzeko eta izateko gune bat, gordailu gisa, sortzea.

Eskola bakoitzaren ezaugarrien arabera jarduera honek ekintza desberdinak izan ditzake bere baitan: eskola-baratzan bertako barietateak txertatzea, tokiko barietateen fruta-arbolak landatzea eskolabaratzan, tokiko fruta-arbolen eta frutaren tailerrak ikasleekin, etab...

Frutateka, urteetan zehar eskola-baratzan ugaltzen edo erabiltzen diren fruta-arbolekin hornituz eta zabalduz joango den espazio fisikoa izatea proposatzen da. Tokiko Fruta-arbolen ugalketari eta zaintzari buruzko aholkularitza teknikoa barnean du jarduera honek. Beraz, **Fruta árbol ezkutuen bila** jarduera-proiektuaren bidez "aurkitutako" edota "adoptatutako" barietateak ere Frutateka parte izango dira.

Proiektu honek, jarduera osagarriak ekar ditzake: fruta arbolen kimaketa eta txertaketa tailerrak, dastaketak, bio-ongarri naturalak eta biodinamikoak, etab.

- **Hezkuntza eskaintzaren beste tailer-proposamen batzuk:**

7. Eko-tokiko elikadura osasuntsua eskolan

(Jangeletarako irizpide berriak tokiko nekazaritza ekologikoaren ikuspuntutik)

Nekazaritzak elikadurarekin duen lotura eta garrantzia barneratzea.

Nori zuzenduta: LH eta DBH

- Iraupena: 1:30 h/ saioa

8. Tokiko haziak, trasgenikoak eta bioteknologiaren mehatxuak: landaketa trasgenikoak Euskal Herrian adi!, "Mostruak gure plateran"

Nori zuzenduta: DBH, Batxilergoa eta Goi-mailako Zikloak

Tailer honek, Zientzia Eskoletan proiektuarekin lotura kurrikularra dauka.

Iraupena: 1:30 h/ saioa eta, hilabete pasa ondoren, 2. saio bat 1:30 h iraupenaz ere bai.

HAZITIK IKASTEN, ESKOLETAN

(2017-2018 ikasturterako irakasleentzako formakuntza)

1. Tokiko Haziari, fruta arbolei, baratza eskolarra eta bioaniztasunari buruzko irakasleentzako formakuntza.

Goian aipatutako proiektuak martxan jartzeaz arduratuko diren irakasleek beharrezkoa izango dute aldeaz aurretik formakuntza espezifiko jasotzea.

a) Non daude gure haziak ekintzarako, saio orokor-kontzeptual bat proposatzen da:

- **Tokiko haziaren bioaniztasunaren garrantzia** eta egungo egoera, nekazaritza ekoizpen ereduak, elikadura osasuntsuagoa eta baratza eskolarra kudeaketarako irizpide berriak.

Iraupena: 1.00 h

b) Haziteka: haziaren gordailua ekintzarako aurreko gaiak gain (a), izaera teknikoagoa duen beste bat ere beharrezkoa izango da:

- **Tokiko baratza haziaren ugalketa eta kontserbazioari buruzko tailerra.**

Iraupena: 1.00 h

c) Fruta arbol ezkutuen bila jardueraren lanerako, saio orokor-kontzeptual bat proposatzen da:

- **Tokiko fruta arbolen bioaniztasunaren garrantzia**, tailer honen helburuak, erabiliko den metodologia, Conect-e plataformaren aurkezpena eta funtzionamendua eta Fruta arbolen gordailua garapenerako aholkularitza.

Iraupena: 1.00 h

d) Frutateka: fruta arbolen gordailua proiekturako aurreko formakuntza saioak gain, izaera teknikoagoa duen beste bat ere beharrezkoa izango da:

- **Tokiko fruta arbolen gordailuari buruzko tailerra.** Orientabide praktikoa eta oinarritzailea

Iraupena: 1.00 h

Labur azaldutako lau ekintza hauetan irakasleen formakuntza beharrezkoa izango da, eta tailer praktikoa, baita hitzaldi "magistralak" ere, eta parte hartzaileen arteko eztabaida sustatzeko teknika parte-hartzaileak uztartuko ditu.

Jarduerak aurrera eramateko **laguntza materiala** ere izango da formakuntzaren osagarri moduan: **Ohizko Baratza Landareen Haziak Gordetzeko Gidaliburua** (Egilea: Haziaren sarea)



Euskalherriko Hazien Sarea
Red de semillas de Euskadi



Euskalherriko Hazien Sarea
Red de semillas de Euskadi



2017-2018 ikasturterako
Hezkuntza eskaintza

haziensarea@gmail.com

688 85 52 26



2017-2018 ikasturterako egutegia

Non daude gure haziak jarduera irailaren bigarren hamabostalditik urriko lehen hamabostaldira egin behar da, beti ere eta alde zuzenetik, irakasleak formakuntza saio bat jaso beharko dutelarik kontutan hartuz.

2018ko urtarrilan jarduera egin duen eskolak balorazio jardunaldi bat proposatzen da, esperientzia partekatu eta ebaluatzeko, baita ere aurkitutako haziak eta fruta-arbolak ezagutzeko eta hauekin egin daitezkeen jarduerak kolektiboki pentsatzeko.

Futa arbol ezkutuen bila jarduera urriaren lehenengo hamabostalditik azaroko lehen hamabostaldira edota martxotik apirilera bitartean egin behar da. Hori dela eta, irakasleen formakuntza urrian edo urtarrilan hasi beharko da.

Haziteka jarduera iraupen jarraia izango du, eta 2018ko negu-udaberrian hasiko da. Ekimen edota proiektu honi dagokionez, irakasleentzako formakuntza 2018ko urtarrilean egingo da. **Frutateka** jarduerari dagokionez, formakuntza ikasturte hasieran burutzea gomendatzen da.

Eskola bakoitzean **Haziteka edota Frutateka** proiektuak definituz doazen neurrian, beraiekin batera gordailu bakoitzari egokitutako jarduera eta egin beharren egutegi bat eraikitzen joango gara. Jakina, bi ekimen hauek **Ikastetxearen Baratza Eskolako proiektuan txertatu daitezke.**

Oharra: Haziak Sareak ikastetxeei eskaintzen dien **Hazitik, Eskola Baratza proiektu hezigarria**z gehiago jakiteko jo guregana.





Besterik gabe, zuen interesekoa izango delakoan agurtzen zaituztegu.

Mila esker aldez aurretik.

Informazio gehiago:

<http://www.haziensarea.org/eu/nor-gara.html>
haziensarea@gmail.com

688 85 52 26



Euskalherriko Haziak Sarea
Red de semillas de Euskadi

